

## Ipularra Oñatin mugia da



OÑATIKO ORTUZABALA Kontsumo Taldia-k antolatuta, hitzaldia eskaini zuen Jakoba Errekondok ekainaren 22an, herriko taldeak biltzen dituen Eltzia egitasmoaren egoitzan.

Ohiko moduan, areto bete jende jakintza truke bizian aritu zen. Errekondok gaia borborka dela azpimarratu zuen: “Baratzea beti izan da ertzekoa. Zergatik? Emakumeek landu dutelako”. Ipularrarekin alderatu zuen, sailaren ertzetan landu gabe geratzen den zatiaekin. “Nola esaten duzue Oñatin ipularra?”. Berehala heldu zen ahots anitzetara erantzuna: “Mugial”. Errekondok jarraitu zuen: “Bada baratzea zentraltasuna irabazten ari da. Nork esango luke duela 10 urte Oñatin gaur 80 lagun bilduko zinetenik baratzeaz hitz egitera?”. Hitzak berreskuratzeko jolasa abiarazi zuen gehiagotan Errekondok: “Nola esaten diozue lastoarekin nahastuta ondutako simaurrari?”; “Kortalohia!” erantzuna. Errekondok errematea: “Konpost hitz ingelese hartu dugu dozena hitz baditugunean bertan horixe esateko. Nik liburuan luarra erabili dut”.

Urteko egunik luzeenetakoa ahitzear zela, irailaren 20an Oñatin bertan ospatuko dugun Argia Eguna arte agurtu genuen elkar. Han izango dugu Ortuzabalako kideak eta paisaia ezagutzeko aukera.

**Bidali liburuan ageri diren landare, lan, tresna eta abar izendatzeko zuenean erabiltzen dituzuen hitzak (mando@zerain.eus). Guztion artean ahalik eta hiztegi aberatsena elikatuko dugu.**

*Bizi Baratzea* liburuaz Errekondok Hernaniko Karabelekon emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai [www.argia.eus/multimedia](http://www.argia.eus/multimedia) helbidean.



### Eskuratu liburua sinaturik

*Bizi Baratzea* ARGIA n erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikus ondoko zutabea non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

### Eskaerak

Salneurria: 23 €  
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545  
[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)  
[denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus)

**Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.**



@bizibaratzea · Informazio gehiago: [www.argia.eus/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/bizi-baratzea)

## AURKEZPEN HITZALDIAK

### herriz herri

**Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.**

Hauek dira ondorengo hitzorduak:

#### Uztailak 4 Antzuola

Euskadi Irratiko Landaberri irratsaioarekin batera, goizeko 10:00etan. Lizarraga auzoko San Martzial ermitan.

#### Uztailak 9 Ainhiza-Monjolose

Euskal Herriko Laborantza Ganbaran, 21:00etan.

#### Uztailak 19 Subilla Gasteiz

Frackanpadako azken eguneko azoka ekologikoan, eguerdian (ordu zehatza zehazteke).

#### Irailak 23 Algorta

Egizul elkarteak antolatutako Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren barruan. 19:30ean, lekua erabakitzeke (eguraldiaren arabera).

### ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu.

[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com)  
☎ 943 371 545